


Papera hauta

Hiztegia

bilduma
aldizkari
orri
orrialde
paper lodi
paper fin

Oharra

Orri handiak plegatuz neurri erdiko orri ttipiagoak egin daitezke. Horrela eginez, gure lanak liburu edo bilduma baten itxura hartuko du.



Abiapuntua

Liburu, bilduma edo aldizkari formari jarraituz, argitalpen bat egin nahi dugu, ikasgelako idazlan batetik abiatuz. Nola joka ?

Jarduera

Xede honek azterketa batzuen egitera behartzen gaitu.

■ Zein euskarri erabil ?


Paper lodia ala fina ? Zein gramaera hauta ? Paper motak haztatuko dira orrien arteko konparaketak eginez. Argitasunak ikus eta irakur orri paketeen azalean edo ingurakian.

■ Zer neurrikoa ?

A3, A4, A5 formatuak. Ikus zer diferentzia den formatu hauen artean. Ariketa batzuk egin daitezke nozio geometrikoak baliatuz eta landuz.

■ Liburuaren gorputza nola osa ?

Liburu, bilduma edo aldizkari zenbaitetan, A4 neurriko orrialdearen lortzeko, A3 orriak erabiliko dira, erditik plegatuz. n orrialderen ukaiteko, $n/2$ A3 behar dugu. Kalkuluan trebatzeko parada ona da.



Paper paketeako argibideak


Laguntza

Papera

Ingurumenaren gerizari
dagokion informazioa



Paper orri pakete
baten azalean
edo ingurakian
informazio zenbait
agertzen dira.
Azalaren irakurketa
antola
daiteke ikasgelan.



Paperaren
gramaera : g/m²

Paperaren neurria

